

DIRU-ITURRIAK:

Gure diru sarrera nagusia mahaiak saltzea denez gure etekinak bertatik etorriko dira. Gure nahi nagusia eusko jaurlaritzari, hezkuntza departamentuari saltzea da eskolara bideratu nahi dugulako gehien bat, ordainketa hau seguruena ordainketa bakar baten egingo litzateke baina eskola pribatuek ere produktua eskuragarri edukiko dutenez, hauek ordainketa kuotetan egin dezakete.

Nahiz eta hasiera batean nahiko produktu sinplea eta eskolara bideratua kaleratu, denborarekin merkatuan zabalduko dugu eta gehigarriak jarriko ditugu salgai, hau da, programa informatiko garatuagoak baita programa hobeak nahi duenaren eskura. Merkatuan zabaltzean, jatetxeetan, supermerkatuetan baita enpresetan sartzeko ahalegina egingo dugu, izan ere, produktu hau enpresa eta lan desberdinetarako oso egokia izan daiteke. Hala ere, hasiera batean jatetxeetan sakonduko dugu, baina beste erakundeetan (aurretik aipatutakoak) sartzea oso ondo egongo litzateke produktuaren garapena aurrera dioan einean.

Negozia ondo bideratuta baldin badao modelo desberdinak atera ditzakegu edota pertsonalizatzeko aukera eman ere. Hori dela eta hasieran finkatutako prezioa aldatzen joango da eta desberdintasunak sortuko dira eta garapenekin batera produktuaren gama altuko, ertaineko eta baxuko mahaiak desberdindu dira . Pertsonalizazio hau ere erakundearen araberakoa izango da.

Bestalde, publizitatea ere diru sarrera bidea izan daiteke. Izan ere, publizitatea txertatuko dugu bai mahaiaren diseinuan baita mahaiaren funtzionamenduan.